

BIZI HITZA

Otsaila 2026

«Hara, gauza guztiak berri egiten ditut» (Ap 21, 5).

Apokalipsiaren liburuak ixten du Itun Berria. Ez da testu erraza. Izenburuak errebelazioa esan nahi du, eta egileak azken gauzak aditzera eman nahi ditu, Jesusen lurrera itzultzea, gaizkiaren behin betiko porrota eta zero eta lur berri baten agerpena.

Kristo Ondorengo 81–96 urteetan jazarpenak daude, eta kristau komunitateetako giroa beldurrezkoa da: zer gertatuko da gurekin eta gure esku utzitako mezuarekin? Zergatik ez du Jainkoak esku hartzen?

Egoera horretan, erromatarrek egilea Patmos uhartera erbesteratzen dute. Han ikuspenak ditu eta horiek idazteko agindua jasotzen du.

«Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

Apokalipsiaren liburuak komunitateei itxaropena eman nahi zien: egungo egoera zaila eta etorkizuna zalantzezkoa izan arren, azkenean ongiak garaipena lortuko du eta Jainkoak gauza guztiak berri bihurtuko ditu.

Gaur ere, «ezbehar asko daude, albiste tristeak, eta horien aurrean ohitzeko arriskua dugu. [...] Baina bada gurekin negar egiten duen Aita bat; bere seme-alabenganako erruki-malko amaigabeak dituen... Gu kontsolatzeko zain dagoen Aita, gure sufrimenduak ezagutzen dituelako eta beste etorkizun bat prestatu digulako. Hauxe da kristau itxaropenaren ikuskari handia, gure bizitzako egun guztietan barrena zabaltzen dena eta altxatu nahi gaituena»¹.

«Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

Ezin dugu jakin noiz eta nola gertatuko den hori, eta alferrik da aztertu nahi izatea. Baina gauza ziurra da gertatuko dela.

«Bibliaren azken orrialdeek fededunaren bidearen azken zerumuga erakusten digute: zeruko Jerusalem, Jerusalem zerutiarra, batez ere kanpadenda itzel bat bezala irudikatua, non Jainkoak gizon guztiak hartuko dituen haiekin behin betiko bizitzeko (Ap 21, 3). Eta hau da gure itxaropena. Zer egingo du Jainkoak behin betiko harekin egongo garenean? Samurtasun amaigabea erakutsiko digu, luzaroan borrokatu eta sufritu duten seme-alabak hartzen dituen aita baten antzera. “Hona Jainkoak gizon-emakumeen artean jarri duen bizilekua [...] Haien begietako malkoak xukatuko ditu, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua betiko desagertua baita [...] Hara, gauza guztiak berri egiten ditut!” (21, 3–5). Berritasunaren Jainkoa!»².

¹ FRANTZISKO, Audientzia orokorra, 2017–8–23: *Llamados a sembrar esperanza*, Ciudad Nueva, Madril 2017, 154–155 orr.

² *Ibid.*, 153–154 orr.

«Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

Nola bizi hilabete honetako Bizi Hitza?

«Horrek ziurtatzen digu mundu berri baterantz goazela, eta hori dagoeneko prestatzen eta eraikitzen ari garela. Bestela esanda, arduragabez jokatu eta mundutik ihes egiteko gonbitearen guztiz kontrakoa da. Izan ere, Jainkoak dena berritu nahi du: gure bizitza pertsonala, adiskidetasuna, ezkontza-maitasuna, familia; bizitza soziala, lan-mundua, hezkuntza, kultura, aisialdia, osasuna, ekonomia, politika... hitz batean, giza jardueraren esparru guztiak. Baina horretarako, bere Hitza bere baitan bizitzen uzten duten pertsonak behar ditu, bere Hitza Bizia izango direnak, beren inguruneetan beste Jesus batzuk»³.

Alice kristau gazteak ulertu zuen bere bokazioa jarraitzeak aldaketa sakona eskatzen zuela Jainkoari bere bizitzan erabat jarduteko eta hura berritzeko aukera emateko. Opari ikaragarri gisa, Indian esperientzia bat bizitzeko aukera izan zuen. Han benetako poza dastatu zuen eta Jainkoaren grazian murgilduta sentitu zen, baita une zailetan ere. Otoitzean, komunitate-bizitzan eta boluntarioritza zerbitzuan eman zituen bere egunak. Umezurztegiko haurrek sakonki hunkitu zuten: ezer ez izan arren, ikaragarritzko ilusioa erakusten zuten eta bizitzari buruz asko irakatsi zioten. Ez zen bidaia soil bat izan, erromesaldia baizik, «igoerak eta jaitsierak» oinarri zituen bidaia bat, non «motxila hustu» behar izan zuen eta aberastuta eta askatuta aurkitu zuen bere burua.

Augusto Parody Reyes i eta Bizi-Hitzako taldea

³ C. LUBICH, 1989ko apirileko Bizi-Hitza: EAD., *Palabras de Vida/1 (1943-1990)*, Ciudad Nueva, Madril 2020, 454 orr.